



2021/04/19

# UDALEKU IREKIAK

Ikastolen Elkarteko Zirimola egitasmoak prestatutako "Eman hegoak" dinamika eskainiko dugu Laudio Ikastolan. Izan ere Udaleku ireki proposamena ekainaren 21etik uztailaren 16ra garatuko da.

## 3 URTETIK LHKO 3. MAILARA

3 urtetik (2017an jaiotakoak) Lehen Hezkuntzako 3. maila (20012an jaiotakoak) bitarteko ikasleei zuzendutako goizeko aisialdi zerbitzua da, 09:30etik 13:30era bideratuko dena.

## AISIOLA

Udalekuaren garapenean Ikastolen Elkartek bultzatutako Aisiola aisialdiko hezitzaile eskolan prestakuntza burutu duten Ikastolako ikasleak arituko dira.

## ASTEKO ERABILPENA

Udalekuak asteko erabilpena eskainiko du, kuotak ere funtzionamendu horretara egokituko direlarik. Aste bakoitzak 65 euroko kuota izango du. Ordainketa 3 zatitan egingo da, maiatza, ekaina eta uztailleko erreziboetan.

1. astea 06/21-06/25
2. astea 06/28-07/02
3. astea 07/05-07/09
4. astea 07/12-15/16

## ORDUTEGI OSAGARRIA

Beharrezko gutxieneko kopurua interesatuta egonez gero, ordutegi osagarria eskainiko da 8:00etatik 9:30era, asteko 14 euroko kuota gehigarriarekin.

## TALDEKATZEA

Taldeak gehienez 12 lagunekoak izango dira. Nolanahi ere, une horretan indarrean dauden protokoloen arabera.



Taldeak adin tarteen arabera antolatuko dira eta toki kopurua baino izen emate gehiago suertatuz gero, izen emate datak ezarriko du parte hartzeko ordena.

## BAJAK

Izen emate epea itxi baino lehenago jakinarazitako bajek ez dute ezer ordainduko. Baja beranduago gertatuz gero baina udalekua oraindik hasi gabe balego, mediku justifikantea aurkeztu beharko da %50a ordaintzeko, gainerako kasuetan kuota osoa kobratuko da.

Izena ematean ikasle bakoitzak parte hartuko duen asteak zehaztu beharko ditu.

**Eskaerak maiatzaren 7ra arte jasoko dira.**

**izena eman**